Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko irailaren 21a, asteazkena — 180 — Miércoles, a 21 de septiembre de 2016

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleek diru-laguntzak eskatzeko deialdia.*

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 13ko bilkuran, besteren artean 2016/2017an Behar ekonomiko bereziak dituztenentzako euskara ikasteko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

— Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake azaroaren 26ko 30/1992 eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

— Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu ordez, edo berraztertzeko errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak sei hilabeteko epea izango du berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik kontatzen hasita administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko.

Ondorioz oinarrien testu osoa argitaratzen da. Interesatuek diru-laguntza eskaerak Euskaltegiko matrikula egiten dutenean aurkez ditzakete, zuriketa, berriz, 2017ko uztailaren 3tik 7ra bitartean egin behar dute.

Usurbil, 2016ko irailaren 13a.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (6444)

*Behar ekonomiko bereziak dituztenentzako euskara ikasteko diru-laguntzak.*

*1. artikulua. Xedea.*

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie. Oinarri hauek diru-laguntza hauek emateko baldintzak jasotzen dituzte.

*2. artikulua. Baldintzak.*

Diru-laguntza hauen onuradun izango dira: Usurbilen erroldatuta egonik, behar ekonomiko berezia duten euskara ikasleak. Ikastaro hauek 2016ko uztailetik 2017ko ekainaren 31 bitartean egindakoak izango dira. Diru-laguntza hauetarako

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Convocatoria de ayudas para estudiantes de euskera con necesidades económicas especiales.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión de 13 de septiembre de 2016, acordó entre otros temas aprobar las bases de ayudas económicas 2016/2017 para estudiantes de euskera con necesidades económicas especiales.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

RECURSOS

— Antes acudir a la vía judicial, la persona interesada, si lo estima oportuno, podrá interponer contra este acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante esta Junta Local de Gobierno, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la publicación de este acuerdo. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 30/1992 de 26 de noviembre y 4/1999 de 13 de enero.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo en el plazo de seis meses, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

En consecuencia, se publica el texto íntegro de las bases. Las personas interesadas podrán presentar la solicitud de ayuda en el mismo momento en el que realicen la matrícula en el Euskaltegi, y el plazo para su justificación será el comprendido entre el 3 y 7 de julio de 2017.

Usurbil, a 13 de septiembre de 2016.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (6444)

*Ayudas económicas para estudiantes de euskera con necesidades económicas especiales.*

*Artículo 1. Objeto.*

El Ayuntamiento de Usurbil considera importante que los habitantes del municipio aprendan euskera. Sin embargo, son cada vez más las personas que tienen dificultades para pagar la matrícula del euskaltegi. En ese sentido, es propósito de este Ayuntamiento facilitar el acceso al aprendizaje de euskera a aquellas personas con necesidades económicas especiales, por lo que estas bases recogen los requisitos que se deben cumplir para la concesión de ayudas con dicho fin.

*Artículo 2. Requisitos.*

Serán consideradas personas beneficiarias de estas ayudas económicas: las personas estudiantes de euskera con necesidades económicas especiales que estén empadronadas en Usurbil. Los cursos deberán realizarse entre julio de 2016 y 31

EK\CV GAO-I-2016-06444

eskaerak Euskaltegiko matrikula egiten denean aurkeztu beharko dira. Diru-laguntzen zuriketa, berriz, 2017ko uztailaren 3tik 7ra bitartean egingo da.

Behar ekonomiko berezia duten herritarrei euskaltegiko matrikula kostua aurreratuko zaie.

Diru-laguntza kopuruak izendatzeko kontuan izango diren irizpideak Euskara ikasleentzako diru-laguntza oinarri orokorretan jasotzen direnak berak izango dira.

Onuradunek, diru-laguntza jasotzeko, baldintza hauek bete behar dituzte:

— Usurbilen erroldatua egotea.

— Gutxienez, ikastaro osoan zehar, %80ko asistentzia izatea. (Autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).

— Gutxieneko aprobetxamendua gainditzea: (Euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa).

Matrikula aurreratzen ari garenez, euskaltegian gaindituko den urratsaren estimazioa da hemen egingo dena. Ikasturtea amaitutakoan aurkezten den agiriaren arabera diru-laguntzaren egokitzapena egingo da.

Diru-laguntza hau jaso ahal izateko, diru-sarreren gehieneko mugak, kide kopuruaren arabera, hauek izango dira:

Kide bat: 625,58 €/ hilean.

2 kide: 803,31 €/hilean.

3 kide edo gehiago: 888,62 €/hilean.

*3. artikulua. Prozedura.*

Behar ekonomiko bereziengatik eskatzen denean diru-laguntza, prozedura hau izango da:

1. Eskaera orriarekin batera agiri hauek aurkeztu (matrikula egiteko garaian):

a) Diru-laguntza eskaera berezia (I. Eranskina).

b) Eskatzailearen NANaren fotokopia.

c) Diru-laguntzaren onuraduna izatea egiaztatzeko agiria: aurreko urteko errenta aitorpena eta/edo DBE agiria (Diru-sarreren Berme Agiria) eta/edo eskaera egiten den urteko lan egoera adierazten duen agiria.

Eskaerarekin batera agiri hauek (kasuan kasukoak) aurkeztu behar dira:

— Eskaera egiten den aurreko errenta aitorpena (egin baldin bada).

— Lanbidek ematen duen DBE (Diru-sarreren Berme Errenta) agiria.

— Eskaera egiten den urteko lan egoera (nominak eta/edo langabezi ziurtagiria).

Nolanahi ere, udalaren esku geratzen da kasu bakoitzean agiri gehiago eskatzea eta kasu bakoitzaren interpretazioa.

2. Gobernu Batzordeak gaiari buruzko erabakia hartu, eta hala badagokio, interesatuari ordainketa egin.

3. 2017ko uztailaren 3tik 7ra bitartean Udalera ekarriko dira:

a) Matrikularen ordainagiria.

b) «Lan historiala» ziurtagiria.

c) Xede bererako eskatutako edo jasotako bestelako diru-laguntzei buruzko zinpeko aitorpena. (II. edo III. Eranskina).

d) IV edo V. Eranskina: asistentzia eta aprobetxamendua adierazten dituena.

4. Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak kasuaren berrikuspena egitea. Gobernu Batzordeak interesatuari ordainketa

de junio de 2017. Las solicitudes de ayuda se deberán realizar en el momento de completar la matrícula en el Euskaltegi. La justificación de la ayuda se realizará entre el 3 y el 7 de julio de 2017.

A las personas con necesidades económicas especiales se les adelantará el coste de la matrícula del euskaltegi.

A la hora de consignar los importes de las ayudas se tendrán en cuenta los criterios señalados en la convocatoria general para solicitar subvenciones para el aprendizaje de Euskara.

Para percibir las ayudas, las personas beneficiarias deberán cumplir las siguientes condiciones:

— Estar empadronadas en Usurbil.

— Completar una asistencia mínima del 80% a lo largo de todo el curso. (En el caso del autoaprendizaje, justificar el aprovechamiento).

— Superar el aprovechamiento mínimo: (deberá acreditarse mediante justificante emitido por el euskaltegi).

Al tratarse de un adelantamiento del coste de la matrícula, se realizará una estimación de los niveles superados en el euskaltegi. Se procederá a ajustar el importe de la ayuda a tenor del justificante que se presente a la finalización del curso.

Para poder recibir la ayuda, estos serán los límites de los ingresos en función del número de miembros:

Un miembro: 625,58 €/mes.

2 miembros: 803,31 €/mes.

3 o más miembros: 888,62 €/mes.

*Artículo 3. Procedimiento.*

Cuando se solicite la ayuda por necesidades económicas especiales, el procedimiento será el siguiente:

1. Se debe presentar la siguiente documentación junto con la hoja de solicitud (en el momento de realizar la matrícula):

a) Solicitud de ayuda especial (Anexo I).

b) Fotocopia del DNI de la persona solicitante.

c) Justificante de ser persona beneficiaria de la ayuda: Declaración de renta del año anterior y/o RGI (Renta de Garantía de Ingresos) y/o documento justificativo de la situación laboral en el año en el que se realiza la solicitud.

Junto con la solicitud, se deberán presentar, en su caso, los siguientes documentos:

— Declaración de la renta del año anterior (si se ha realizado).

— RGI que emite Lanbide (Renta de Garantía de Ingresos).

— Situación laboral del año que se realiza la solicitud (nóminas y/o certificado de desempleo).

En todo caso, el Ayuntamiento podrá requerir cuanto documentación crea necesaria y le corresponderá la interpretación de cada caso.

2. Toma de decisión por parte de la Junta de Gobierno y, en su caso, pago a la persona interesada.

3. Se deberá aportar al Ayuntamiento entre el 3 y 7 de julio de 2017:

a) Justificante de pago de la matrícula.

b) Certificado de vida laboral.

c) Declaración jurada sobre las ayudas solicitadas y recibidas con el mismo objeto. Anexo II o III).

d) Anexo IV o V: Asistencia y aprovechamiento.

4. Revisión por parte de la Comisión General de ayudas. En caso de que la Junta de Gobierno haya decidido adelantar el

EK\CV GAO-I-2016-06444

aurreratzea erabaki bazuen eta diru-laguntzen Batzorde Orokorrak kasuaren berrikuspena egin ondoren, interesatuak aurreratutako kopuru guztia edo zati bat itzultzearen beharra ikusten bada, Gobernu Batzordeak ebatziko du gaia.

Goian aipatutako baldintzak beteko ez balira, eskatzaileak udalak aurreratutako diru guztia itzuli egin beharko luke.

pago, una vez realizada por parte de la Comisión General de ayudas la revisión del mismo, corresponderá a la Junta de Gobierno la decisión de que la persona interesada devuelva en su totalidad o parcialmente la cantidad adelantada.

En caso de incumplimiento de los requisitos señalados, la persona interesada deberá reintegrar toda la cantidad económica que recibió por adelantado.

Usurbilgo Udala

# I. Eranskina

| DIRU-LAGUNTZA AURRERATZEKO ESKAERA ORRIA | 2016 |
|---|---|

**DATUAK**

| | | |
|---|---|---|
| Izen-abizenak: | | |
| Helbidea: | | |
| Herria: | | PK: |
| Telefonoa: | E-maila: | NAN: |

Neure izenean edo ..............................................................................................................renean.

## ADIERAZTEN DUT

☐ Euskara ikasi nahi dut.

Hori dela eta, Usurbilgo Udalak behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikasteko diru-laguntza oinarriek eta Usurbilgo Udalaren Diru-laguntzen Ordenantzak diotenari jarraituz:

## ESKATZEN DUT

☐ Euskaltegirako dirua aurreratzea

## IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

| | |
|---|---|
| Ikastaroaren izena: | |
| Hasierako urratsa eta maila: | Amaieran aurreikusten den urratsa eta maila: |
| Euskaltegia: | Ordu-kopurua: |
| Hasiera data: | Amaiera data: |
| Ordaindu beharreko matrikula: | |

## ERANSTEN DITUDAN AGIRIAK

☐ NAN fotokopia.

☐ Aurreko urteko errenta aitorpena (egin baldin bada)

☐ Diru-sarreren Berme Agiria (DBA) (behar ekonomiko bereziak dituzten kasuetan)

☐ Aurtengo nominak edo lan historiala

☐ Besterik:

☐ Beka ordaintzeko kontua (20 digitu): ______________________________________

Usurbil, 2016ko _______________ren ___a

Sinadura

EK\CV GAO-I-2016-06444

Usurbilgo Udala

## II. Eranskina

# USURBILGO UDALAZ KANPOKO DIRU-LAGUNTZARIK JASO EZ IZANAREN ZINPEKO AITORPENA

**DATUAK**

| | | |
|---|---|---|
| Izen-abizenak: | | |
| Helbidea: | | |
| Herria: | | PK: |
| Telefonoa: | E-maila: | NAN: |

**ZINPEAN AITORTZEN DUT**

Ez dudala Usurbilgo Udalaz kanpoko diru-laguntzarik jaso 2016/17 ikasturtean euskara ikasteagatik.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbil, 2016ko _______________ren ___a

Sinadura

EK\CV GAO-I-2016-06444

Usurbilgo Udala

# III. Eranskina

## USURBILGO UDALAZ KANPOKO DIRU-LAGUNTZARIK JASO

## IZANAREN ZINPEKO AITORPENA

**DATUAK**

| | | |
|---|---|---|
| Izen-abizenak: | | |
| Helbidea: | | |
| Herria: | | PK: |
| Telefonoa: | E-maila: | NAN: |

**ZINPEAN AITORTZEN DUT**

Usurbilgo Udalaz kanpoko diru-laguntza eskaera hau egin dut, 2016/17 ikasturtean euskara ikasteagatik:

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbil, 2016ko ______________ren ___a

Sinadura

EK\CV GAO-I-2016-06444

Usurbilgo Udala

# IV. Eranskina

## EUSKARA IKASTAROA: ASISTENTZIA ETA APROBETXAMENDUA

Honen bidez ziurtatzen dut, ___________________k ___________________ Euskaltegian asistentzia eta aprobetxamendu hau izan duela:

| | |
|---|---|
| Ikastaroaren izena: | Gainditutako urratsa: |
| Euskaltegia: | Ordu-kopurua: |
| Hasiera data: | Amaiera data: |
| Hasierako maila: | Amaierako maila: |
| Ordaindutako matrikula: | |
| Asistentzia: jasotako ordu-kopurua: | Asistentzia: jasotako ordu-kopurua ehunekotan: |
| Aprobetxamendua:<br>☐ Ona<br>☐ Eskasa<br>☐ Txarra | |

Usurbil, 2016ko _______________ren ___a

Euskaltegiaren sinadura

EK\CV GAO-I-2016-06444

Usurbilgo Udala

# V. Eranskina

## EUSKARA IKASTAROA: AUTOIKASKUNTZAKO ASISTENTZIA ETA APROBETXAMENDUA

Honen bidez ziurtatzen dut, ______________________________________________________________________k ____________________________ Euskaltegian egindako autoikaskuntza ikastaroak asistentzia eta aprobetxamendu hau izan duela:

| | |
|---|---|
| Ikastaroaren izena: | Gainditutako urratsa: |
| Euskaltegia: | Ordu-kopurua asteko (bataz bestekoa) |
| Orduak orokorrean: | Mintza eskolak zenbat: |
| Aholkularitza saioak zenbat: | Orotara orduak (programa+eskolak+aholkularitza) |
| Hasiera data: | Amaiera data: |
| Hasierako maila: | Amaierako maila: |
| Ordaindutako matrikula: | |
| Asistentzia: jasotako ordu-kopurua: | Asistentzia: jasotako ordu-kopurua ehunekotan: |
| Aprobetxamendua: | |
| ☐ Ona | |
| ☐ Eskasa | |
| ☐ Txarra | |

Usurbil, 2016ko ______________ren ___a

Euskaltegiaren sinadura

EK\CV GAO-I-2016-06444

Usurbilgo Udala

## Anexo I

| HOJA DE SOLICITUD DE ADELANTO DE AYUDA ECONÓMICA | 2016 |
|---|---|

**DATOS**

| | | |
|---|---|---|
| Nombre y apellidos: | | |
| Dirección: | | |
| Población: | | CP. |
| Teléfono: | E-mail: | DNI: |

en mi nombre o en representación de ..........................................................................................................................

## DECLARO

❑Quiero aprender euskera.

En consecuencia, a tenor de lo dispuesto en las bases de ayudas económicas para que las personas con necesidades económicas especiales aprendan euskera y de lo dispuesto en las Ordenanzas de Ayudas Económicas del Ayuntamiento de Usurbil:

## SOLICITO

❑Adelantar el dinero del euskaltegi.

## CARACTERÍSTICAS DEL CURSO

| | |
|---|---|
| Nombre del curso: | |
| Nivel inicial: | Nivel final previsto: |
| Euskaltegi: | Número de horas: |
| Fecha de inicio: | Fecha de finalización: |
| Matrícula que se debe satisfacer: | |

## DOCUMENTOS ADJUNTOS

❑Fotocopia del DNI.
❑Declaración de la renta del año anterior (si se ha realizado)
❑Renta de garantía de Ingresos (RGI) (en casos de gran necesidad económica)
❑Nóminas de año en curso o historial laboral
❑Otros
❑Número de cuenta para el abono de la beca (20 dígitos): ____________________________________

En Usurbil, a ___ de ___________ de 2016

Firma

EK\CV GAO-I-2016-06444

Usurbilgo Udala

# Anexo II

## DECLARACION JURADA DE NO HABER RECIBIDO NINGUNA SUBVENCIÓN DE OTRA ENTIDAD

### DATOS

| | | |
|---|---|---|
| Nombre y apellidos: | | |
| Dirección: | | |
| Población: | | CP: |
| Teléfono: | E-mail: | DNI: |

### DECLARO

Que al margen de la del Ayuntamiento de Usurbil no he recibido subvención para el aprendizaje del euskera durante el curso 2016/17.

Para que así conste, firmo este documento.

En Usurbil, a ___ de ___________ de 2016

Firma

Usurbilgo Udala

# Anexo III

## DECLARACION JURADA DE HABER RECIBIDO SUBVENCIÓN DE OTRA ENTIDAD

## DATOS

| | | |
|---|---|---|
| Nombre y apellidos: | | |
| Dirección: | | |
| Población: | | CP: |
| Teléfono: | E-mail: | DNI: |

## DECLARO

Además de la del Ayuntamiento de Usurbil, he presentado la siguiente solicitud de subvención para el aprendizaje del Euskara en el curso 2016/2017.

Para que así conste, firmo este documento.

En Usurbil, a ___ de ___________ de 2016

+

Firma



EK\CV GAO-I-2016-06444

# Anexo IV

## CURSO DE EUSKARA: ASISTENCIA Y APROVECHAMIENTO

Por la presente certifico que en el euskaltegi …………………………… don/doña ………………………….….ha tenido el siguiente aprovechamiento:

| | |
|---|---|
| Nombre del curso: | Nivel superado: |
| Euskaltegi: | Número de horas: |
| Fecha de inicio: | Fecha de finalización: |
| Nivel inicial: | Nivel final: |
| Matrícula abonada: | |
| Asistencia: número de horas lectivas: | Asistencia: porcentaje de horas lectivas: |
| Aprovechamiento:<br>❑Bueno<br>❑Regular<br>❑Malo | |

En Usurbil, a ___ de ___________ de 2016

Firma del euskaltegi

EK\CV GAO-I-2016-06444

# Anexo V

## CURSO DE EUSKARA: ASISTENCIA Y APROVECHAMIENTO DEL AUTOAPRENDIZAJE

Por la presente certifico don/doña ……………………………..ha tenido la siguiente asistencia y aprovechamiento en el curso de aprendiza realizado en el euskaltegi ……………………………

| | |
|---|---|
| Nombre del curso: | Nivel superado: |
| Euskaltegi: | Número de horas por semana (promedio): |
| Horas en general: | Número de horas de práctica oral: |
| Número de sesiones de asistencia: | Número total de horas (programa+clases+asistencia) |
| Fecha de inicio: | Fecha de finalización: |
| Nivel inicial: | Nivel final: |
| Matrícula abonada: | |
| Asistencia: número de horas lectivas: | Asistencia: porcentaje de horas lectivas: |
| Aprovechamiento:<br>❑Bueno<br>❑Regular<br>❑Malo | |

En Usurbil, a ___ de ___________ de 2016

Firma del euskaltegi

EK\CV GAO-I-2016-06444